



Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak

Hitzaldien laburpenak

AHOZKO EUSKARAREN UNIBERTSOA.....	2
Ines M. Garcia-Azkoaga (EHU).....	2
UNIBERTSITATEA ETA ESKOLA ELKARREKIN AHOZKO HIZKUNTZAREN DIDAKTIKA LANTZEN: PRAKTIKA ETA BIDE BERRIAK EGINEZ	4
Karmele Perez Lizarralde (MU. HUHEZI), Agurtzane Azpeitia (MU. HUHEZI), Idurre Alonso (MU. HUHEZI).....	4
TOLOSA. AHOZKO LABORATEGIA. LAU URTEKO ESPERIENTZIA DBH-KO IKASGELETAN	6
Josune Zabala (Soziolinguistika Klusterra).....	6
NAFARROAKO ESPERIENTZIAK EUSKARAREN IRAKASKUNTZAN	9
Esther Muguerza (Euskara atala), Yolanda Olasagarre (EIBZ)	9
AHOZKOTASUNA EKI EGITASMOAREN BAITAN.....	14
Mikele Aldasoro (Ikastolen Elkartea).....	14
AHOZKOTASUNA SOZIOLOGIAKAREN BEHATOKITIK.....	16
Kike Amonarriz (soziolinguistikan aditua)	16



Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak

AHOZKO EUSKARAREN UNIBERTSOA

Ines M. Garcia-Azkoaga (EHU)

2015.07.02

Ahozko hizkuntzaren azterketari eta irakaskuntzari heldu bezain laster konturatzen gara gaia uste baino konplexuagoa dela. Izan ere, ahozko bat baino gehiago dago. Askotarikoak dira gure komunikazio-jardueretan baliatzen ditugun ahozkotasan formak. Unibertso bat osatzen dutela esan genezake. Ugaritasun horren adierazle dira ahozko euskararen gainean azken urte hauetan egin diren zenbait ikerketa. Hemen, nolahi ere, euskarari buruzkoak hartuko dira kontuan soilik.

Ahozko euskarari dagokionez, gurean ohikoak izan dira helburu antropologikoa, dialektala, fonetikoa edo, oro har, filologikoa izan duten azterlanak, baina ikerketa berrien eskutik hizkuntzaren beste dimentsio batzuk ezagutzeko aukera izan dugu, hala nola, diskurtsiboa, erretorikoa, jabekuntzazkoa, didaktikoa, prosodiazkoa, teknologikoa... Ikuspegi batetik zein bestetik hurbilduta ere, badira nonahiko galdera batzuk: zer da zehazki ahozko hizkuntza? Non daude haren mugak? Erantzunak baldintzatuko du aztertzeke aukeratzen dugun ahozkotasan mota, haren gainean egin ahal izango ditugun ikerketak eta erabili beharko ditugun metodologiak. Ez da kontu horietan sakonduko hemen, baina ekarriko dira konplexutasun hori erakusteko adibide zenbait. Izan ere, ohikoa izan da ahozko eta idatzizko hizkuntza bereiztea, baina bereizketa hori okerreko irizpideen gainean eraikita dago sarritan: formaltasun gutxiagoko hizkuntza da ahozkoa? akastunagoa idatzia baino? Berehalakoa eta galkorra? Bai eta ez. Larringanek (2007) dioen bezala funtzionamendu desberdina dutenez ezin dira parekatu, eta erretegiaren tratamendua eta ebaluazio irizpide desberdinetan oinarritu beharko lirake. Ahozko hizkuntzaren izaera, beraz, konplexuegia da aipatutako ezaugarrietara mugatzeko. Bat-bateko solasaldia alde batera utzita, ahozkoa eta idatzia elkarren osagarri direla esan daiteke, *continuum* bat osatzen dutela. Ez du zentzu handirik, beraz, bien arteko bereizketa zorrotza mantentzerik.

Irakaskuntzari begira ere garrantzizko gaia da. Eskola curriculumetan ahozko hizkuntza ikastearen garrantzia aipatzen da. Baina hizkuntza testu-generoetan oinarrituta irakatsi nahi izanez gero, ezinbestekoa da hainbat erabaki eta hautu egitea eskolan eta ikasleen beharretara egokitutako testuak aukeratzeko. Zein ahozkotasan landu aukeratu behar da, baina baita nola landu ere. Eta hor ditugu lagungarri testu-generoen eta sekuentzia didaktikoen ereduak. Horrek eskatzen du, baina, oinarri teoriko eta metodologikoetan trebatzeko prestakuntza.

Badago ahozko hizkuntzaren beste dimentsio bat bereziki interesgarria euskararen kasuan. Eskolan dena euskaraz ikasi arren eta euskarazko gaitasun onak izan arren, gure gaztetxoek



Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak

gaztelania erabiltzeko duten joera ikusirik, zergatik ez egin gogoeta eskolako partaideek euskararen normalizazioaren eragile bezala jokatzeko paperaz? Argibide bila, eskolan sartu eta saio osoen grabazioak egin dira hezkuntzako azken zikloan (11-12 urte) eta bigarren hezkuntzako lehen zikloan (12-13 urte). Emaitzak oraindik aztertzeko dauden arren, azterketa oso garrantzizkoa izango da eskolan euskararen ahozko erabilera formala zein informala sustatuko duten tresna didaktikoak bilatzeko eta gaztetxoaren ohituren aldaketan eta euskararen erabileran eragiteko.

Gauzak horrela, etorkizunari begira garrantzia handia du unibertsitateak eskolarekin elkarlanean duen erronka, hala nola, ahozko irakaskuntza formalerako eta ez formalerako sekuentzia didaktikoak sortzeko eta esperimendatzeko, ahozko testu-generoen azterketan sakontzeko, gela barruko elkarrekintzei behatuta, ahozko hizkuntzaren erabileran eragiteko dispositibo didaktiko egokiak sortzeko, eta irakasleen hasierako zein etengabeko prestakuntzan eragiteko.



Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak

UNIBERTSITATEA ETA ESKOLA ELKARREKIN AHOZKO HIZKUNTZAREN DIDAKTIKA LANTZEN: PRAKTIKA ETA BIDE BERRIAK EGINEZ

Karmele Perez Lizarralde (MU. HUHEZI), Agurtzane Azpeitia (MU. HUHEZI), Idurre Alonso (MU. HUHEZI)

2015.07.02

Aurkezten ari garen lana prestakuntzaren eta ikerketaren bi kezkatatik abiatzen da. Kezketako bat prestakuntza-ereduarekin berarekin lotuta dago. Izan ere, aurkitzen ditugu ereduak arreta jartzen dutenak ezagutzen eta praktiken transmisioan, eta, gainera, bada uste orokor bat esaten duena ikastaro orokortuek edo puntualek (hainbat ikastetxek parte hartzen duten mintegi edo ikastaroe) ez dituztela espero diren emaitzak lortzen eta, behin prestakuntza-aldia amaituta, hezkuntza sistemak ez duela bermatzen ahozko hizkuntzaren irakaskuntzaren praktika sistematikorik. Eta bada bigarren kezka bat —gizartean zein instituzioetan— ikasleen euskararen ahozko erabileraren zein kalitatearen gainean, are gehiago ikasleek curriculum H2an egiten duten testuinguruetan edo euskara hizkuntza minorizatua den ingurune sozialetan.

Prestakuntzan kokatzen garelarik, aldarrikatu nahi dugu prestakuntza berritzaile eta eraldatzaile bat, irakaslearen profesionalizazioan lagunduko duena eta eredu tradizionaletik urrunduko dena. Gure prestakuntza-ereduan sortzen den dispositiboarekin indartu nahi dira ahozkoaren irakaskuntza-ikaskuntzaren lehentasunak, ikastetxeko irakasleen esku-hartze eta lankidetzaren ereduak eta horiek guztiak ikastetxean bideratzeko berrikuntza-eredua. Horretarako erabilitako metodologiarekin, praktika eta gogoeta sustatu nahi dira eta inplikatu nahi dira irakasleak berrikuntza hori lortzeko eraldaketa prozesu batean. Ez goaz kanpotik esatera gauzak nola egin behar diren, ez goaz kanpo-ikerketa deskribatzailea egitera, non irakasleek ez duten parte hartzen eta ez den berrikuntzarik espero esku-hartze didaktikoaren ondorioz. Prestakuntza eta ikerketa lotzen dituen eredu batean kokatzen gara, non irakasleak abiapuntu moduan dauzkan bere praktika, gogoeta eta kanpoko prestatzaile-ikertzaileekin adostutako estrategiak. Garrantzitsua da, hortaz, irakasleen eta kanpo-prestatzaileen artean ezartzen den harremana, elkarlanean oinarritua eta mesede egingo diona komunikazioari, gogoetari, hobekuntzari eta berrikuntzari.

Gure hobekuntza eta berrikuntza-proiektu hori ahozko hizkuntzaren garapena sustatzeko ahaleginen zentratuko da.

Azken urteetan eskola jabetu da ahozkoa berariaz landu beharraz eta irakasle asko horretan saiatzen dira. Badira, baina, horren harira sortzen zaizkigun hiru galdera (Roulet, 1991): 1) zer da ahozkoa eta zein ahozko irakatsi behar da?; 2) nola irakatsi daiteke ahozkoa?; eta 3) zeintzuk izango dira orientazio horren inplikazioak irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzan? Ahozkoa zer den eta nola landu behar den irudikatze horretan hainbat alderdiri erreparatu beharko diete irakasleek. Pentsatu beharko dute zer estatus ematen dioten eta eman nahi dioten ahozkoari gelan, eta ondoren pentsatu zer landu eta ebaluatu nahi duten. Hortik eratorriko da zein izango den ahozko irakaskuntza- eta



Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak

ikaskuntza-objektua gelan. Eta bide hori egiteko, etengabeko prestakuntzan kokatzen gara, ikastetxeko klaustro osoarekin lanean, irakasleen lana eraldatzeko eta ikastetxeko proiektuan eragiteko lanean.

Ikastetxean eraldaketa gertatuko bada, dagoen errealitatetik abiatu beharra dago. Horretarako, hasierako diagnostikoa izaten da lehendabiziko jardura jakiteko irakasleek zer egiten duten, ondoren klaustroan konpartitzeko eta hausnartzeko zer uste duten ahozkoaren lanketaz. Irakasle

guztiek dituzte errepresentazioak “ahozko hizkuntzari eta bere didaktikari” buruz, eta izaten dituzte zenbait gune eta une ahozkoaren lanketari eskaintzen dizkiotenak. Hori guztia jakitea ezinbestekoa da lanean hasteko, bai eskolako irakasleentzat eta baita prestatzaile-ikertzaileontzat ere. Irakasleei dagokienez, garrantzitsua da egiten dutenaren kontzientzia hartzea eta testuinguru konpartitua zein den adostea, bai eta premia zehatzak zeintzuk izan ahal diren irudikatzea ere. Prestatzaileoi dagokigunez, prestakuntza-objektua eta objektu horren garapena definitu ahal izateko, behar dugu ezagutu testuinguru zehatza, diseinatzen ari garen prestakuntza ahalik eta neurrikoena izan dadin. Diagnostikoa egiteko erabilitako tresna egunkaria izan da.

Aurkezpen honetan azalduko dugu zer dioten irakasleek egiten duten ahozkoaren lanketaz hainbat ikastetxetan egindako prestakuntzaren hasieran irakasleek betetako egunkarietatik abiatuta. Horrekin jakin nahi dugu ikastetxe horietan ahozkoaren inguruan zer egiten duten prestakuntzari ekin aurretik. Egunkarietan identifikatu ditugu hainbat adierazle ahozkoaren printzipioak kontuan izanda etiketatu ditugunak eta ikusi dugu printzipio horiek nola gauzatzen diren eskolan, bai eta, horren arabera, zeintzuk izan daitezkeen eskoletan ahozkoaren sustapen eta lanketari begira dauden argiak eta itzalak. Horrela lortzen dugu ikastetxeko irakasleen praktikatik abiatzea, agertzen diren itzalak prestakuntza-gai bihurtzea eta ikastetxe bakoitzaren errealitatetik abiatu eta bere beharretara egokitzea.



Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak

TOLOSA. AHOZKO LABORATEGIA. LAU URTEKO ESPERIENTZIA DBH-KO IKASGELETAN

Josune Zabala (Soziolinguistika Klusterra)

2015.07.02

Aurkezpen honen edukia kokatzen da Soziolinguistika Klusterra Elkartek Tolosako ikastetxe guztietan bideratu duen ekintza-ikerketa baten, zeinetan helburu izan duen Bigarren Hezkuntzako ikasleen ahozko hizkuntza (H1 edo H2 euskara) hobetzea eta horretan laguntzen duten metodologia ezberdinetan sakontzea: material didaktikoa eta irakaslearen esku hartzea, zehazki. Errealitate linguistiko ezberdindun ikastetxeek parte hartu dutenez, jakin nahi izan da, halaber, aldagai soziolinguistikoak (etxetik dakarten hizkuntzak, batez ere) ere baldintzatzen ote duen ikasleen ahozko ekoizpenen garapenean.

Hala, lau urtetako ikerketa honetan (2010-2014), Tolosako DBHko (12-16 urte) 44 geletan eta ia 1.100 ikasleren parte hartzearekin ikertu eta esku hartu da.

Tolosako ikastetxe guztiak (eskola publiko bat eta bi kontzertatu) D eredukoak (irakaskuntza euskaraz) diren arren, bakoitzaren errealitate soziolinguistikoa oso da ezberdina, eta hizkuntza-aniztasun hau kontuan hartuta, ondorengo galderak erantzun ahal izango ziren laborategia eraiki da:

1. Zenbat eta nola ikasten da ahozko hizkuntza DBHn?
2. Ahozko hizkuntza ikastetxean sistematikoki lantzeak lagun lezake ikasleen ahozko trebetasunak hobetzen?
3. Lan honek guztiak, halaber, lagun lezake irakasleen esku hartzea hobetzen?
4. Zein mailatan izan daitezke Sekuentzia Didaktikoak tresna egoki ahozko hizkuntza hobetzen laguntzeko?
5. Nolako esku hartzeek laguntzen dute ahozko hizkuntzaren garapenean?

Lau urtetako ekintza-ikerketa, hiru etapetan banatu da:

Ikerketaren antolaketa (2010-2014)

LEHEN ETAPA: lehen ikasturtea (2010-2011)
1. Errealitate soziolinguistikoaren diagnostikoa: gazteen ahozko trebetasunak eta erabilera maila zein jarrerak euskara eta gaztelaniarekiko.
BIGARREN ETAPA: bigarren ikasturtea (2011-2012)
1. Ahozko hizkuntzaren presentzia ikastetxeetako curriculumetan eta material didaktikoetan. Bi oinarrien azterketa eta emaitzak.
2. Ahozko hizkuntza lantzeko material didaktikoak (Sekuentzia Didaktikoak) diseinatu.
3. Esku hartzea: material didaktikoarekin probak eta ebaluazioa.
4. Materialean hobekuntzak, jasotako ebaluazioak kontuan hartuta.
Hirugarren ikasturtea (2012-2013)
1. Esku hartzea: material didaktikoarekin probak eta ebaluazioa.
2. Ikasleen ahozko ekoizpenen analisia: esku hartze aurretiko ekoizpenak (aurre-testuak) eta esku hartze ondorengo ekoizpenak (ondo-testuak).
HIRUGARREN ETAPA: laugarren ikasturtea (2013-2014)



Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak

1. Material didaktikoaren esku hartze unearen behaketa eta analisisa (ikasle-irakasle arteko elkarrekintza).
2. Elkarrekintzetako praktika onen bilaketa.
3. Ikasleen ahozko ekoizpenen analisisa: esku hartze aurretiko ekoizpenak (aurre-testuak) eta esku hartze ondorengo ekoizpenak (ondo-testuak).
3. Azken ondorioak eta etorkizuneko ekintza-ikerketarako erabakiak.

Hizkuntzaren ikuspegi interakzionista eta soziodiskurtsiboan oinarrituz diseinatu dira zortzi Sekuentzia Didaktiko ahozko hizkuntza ikastetxeetan lantzeko (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan):

Sekuentzia Didaktikoak

IKAS MAILA	1. Sekuentzia Didaktikoa	2. Sekuentzia Didaktikoa
DBH 1	Testu generoa: narrazioa <i>Hala bazan edo ez bazan...</i>	Testu generoa: elkarrizketa <i>Elkar-hizketan...</i>
DBH 2	Testu generoa: iritzi trukea <i>Iritzen diogulako...</i>	Testu generoa: errezeta <i>eRe-Zeta</i>
DBH 3	Testu generoa: poesia errezitaldia <i>Hitzaren lilura</i>	Testu generoa: azalpen zientifikoa <i>Azalpen zientifikoa</i>
DBH 4	Testu generoa: debatea <i>Bai edo ez... zergatik?</i>	Testu generoa: bakarrizketa umoretsua <i>iRi-TeraPia</i>

Ikerketa honetarako sortutako material didaktikoaren ganean ikasle zein irakasleek egindako balorazioak jaso eta hobekuntzak egin dira. Halaber, ikasleen ahozko ekoizpenak aztertu dira jakiteko zer-nolako garapena izan duten materialaren esku hartzeen eraginez, eta, irakasleekin izandako elkarrizketen bidez esku hartze eraginkorren bilaketa lana ere egin da.

Abiapuntuan jarritako galderen erantzunen bilaketan honako ondorioak jaso dira, labur:

1. Ahozko hizkuntzak DBHn, oraindik orain, presentzia txikia du. Ikastetxeetan beharra sumatzen da ahozko hizkuntzaren alorrean helburuak definitzeko, baita ikastetxeko curriculumak egokitu eta irakasleak formatzeko ere.
2. Sekuentzia Didaktikoen (SD) bitartez ahozko hizkuntza sistematikoki landu izanak lagundu die ikasleei euren ekoizpenak hobetzen. Ildo horretatik, gure ikerketan aldagai soziolinguistikoen gaindiko beste batzuk baldintzatu dute ikaskuntza; material didaktikoaren izaera, irakaslearen esku hartze estrategiak eta gelako elkarrekintzaren izaera mugarri izan daitezkeela uste dugu.
3. SDak diseinatzeak eta gaiaren jarraipenak laguntzen du ahozko hizkuntzaren irakaskuntzaren planifikazioan, esku hartze moduan eta ebaluazioan. Ahozko hizkuntza irakaskuntza objektu bihurtzen denean, gainera, teknologia berriak bihurtzen dira ezinbesteko lanabes ahozko ereduak baliatu (ikus-entzunezkoak), ahozko ekoizpenak bideratu (grabaketak) eta ahozko hizkuntzan oinarritutako jarduerak egiten baitira horien bitartez, besteak beste.
4. Sekuentzien bitartez bideratu diren jardueren ondoren DBHko ikasleen ahozko trebetasunak hobetu egin direla ikusi dugu. Dena dela, uste dugu tartean-tartean topatu ditugun erralitate batzuetan sakontzea interesgarri gerta litekeela: morfosintaxian eta hiztegiaren aurrerapen txikia egin izana; testuinguru informaletan euskaraz komunikatzeko zailtasunak edukitzea; H1



Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak

euskara duten ikasle batzuen kasuan aurre-testuak hobeak izatea (batez ere, testuinguru informaletan), eta abar.

5. Materialaren egokitasuna bezainbat garrantzitsua da irakaslearen esku hartzea. Material berdinarekin ikasleen balorazioak eta emaitzak ezberdinak izatea lotzen dugu irakaslearen esku hartze motarekin. Askoren artean, ikerketa honetan baldintzagarriak izan dira honako aldagaiak: ahozko hizkuntzaren eta komunikazioaren gainean irakasleak duen irudikapena, material didaktikoa ezagutu eta lantzeko hartutako denbora, materialaren proposamenak gure errealitatera egokitzeko joera, ikasleen emozioen kudeaketa, gelako elkarrekintzetan darabilgun hitzaren kudeaketa mota, eta abar.



Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak

NAFARROAKO ESPERIENTZIAK EUSKARAREN IRAKASKUNTZAN

Esther Mugerza (Euskara atala), Yolanda Olasagarre (EIBZ)

2015.07.03

Nafarroako euskararen irakaskuntza ulertzeko hainbat gauza gogoan izatea komenigarria da. Lehenengoa, Nafarroako euskararen legeak ezarritako hiru hizkuntz eremuak, Nafarroako egoera soziolinguistikoa (euskaldun kopurua, herri batetik besterako aldea, hiriburuan euskararen egoera zein den, eta abar). Egoera aski desberdinak ditugu batetik bestera eta ereduari dagokienez D (+IIP), B eta A (+IIP) ereduak ditugu aintzat hartzekoak. Adibide modura hemen dituzue 2014-15eko eskolatzeko datuak:

D	A	G	BR- IIP G	BR-IIP G-A-D-AIP
23,72	14,83	52,33	9,12	14,29

Gure herrietan euskaraz eskolatutako umeekin batera euskararekin ia batere harremanik ez duten ikasle asko ditugu, eta horren ondorioz, ikastetxean euskara bereganatzen duten ikasleek ikastetxetik at gehienetan ez dute ia batere aukerarik euskaraz aritzeko. Egoera baldintzatzen duten ezaugarri ezberdin anitz izanda ere, ikasleen euskararen erabilera urria delakoan, irakasleak, hezkuntza komunitateko partaideak eta gurasoak oso kezkatuta gaude aspalditik.

Euskararen erabilera bultzatzeko azken 2 hamarkadetan ikastetxeetan egin diren jarduerak aztertu ondoren, irakasleen kezka eta zalantza entzun ondoren, egoeraren datu soziolinguistikoak kontuan hartu ondoren eta prestakuntza jaso ondoren, gure lanerako ondorio argigarria izan dena iritsi gara.

Eskolak ikasleen euskararekiko motibazioa zein ahozko gaitasuna landu behar dituela. Batetik, euskararen aldeko motibazioa eta atxikimendu positiboa bultzatuz; eta bestetik, euskaraz aritzeko aukerak etengabe eskainiz gela eremuan euskarazko ahozko gaitasunean erraz eta eroso sentiarazteko. Bi adar hauek uztartuta daudenez, elkarrekin lantzea proposatzen dugu ikastetxeetan:

Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak

EUSKARA SUSTATZEKO BIDEAK g
e
l
a
n

motibazioa eta aholkoa

Moodle ikasgela

0 Sarrera	1. Egoeraren diagnostikoa	2. Motibazioa gelan: estrategia orokorrak	3. Motibazioa gelan: Euskararekiko interbentzioak
4. Motibazioa gelan: motibazioa sustatzeko	5. Aholkoa gelan	6. Lanaren atalak	7. Beste dokumentu batzuk

5. gaia: AHOZKOA GELAN

Zereginak

AHOZKO HIZKUNTZA IRAKASTEA Moodle ikasgela

0 Sarrera	1. Aholkoaren ikuspegia eskolan	2. Aholkoa irakastea	3. Aholkoaren ezagueriak	4. Sekuentzia didaktikoa	5. Aholkoaren ebaluazioa	6. Adibideak: sekuentzia didaktikoa
-----------	---------------------------------	----------------------	--------------------------	--------------------------	--------------------------	-------------------------------------

4. gaia: Sekuentzia didaktikoa

Zereginak

6. Sekuentzia didaktikoa sakontzea

7. Egoera eta helburu komunikatiboak

Entzun Joserra Garziaren solasaldia eta proposatu gelaratu zenukeen egoera eta helburu komunikatibo bati testu genero bati lotuta

Zereginaren dokumentua



MOTIBAZIOA

Euskararekiko motibazioak dakarrena da ikasten ari zaren hizkuntza hori gertu, zurea bailitza sentitzea; aldi berean, balio afektiboa handitzea eta estutzea, hori izan baitaiteke motorra ikasten ari zaren hizkuntza horretan komunikatzeko. Ikastetxeei prestakuntza eskaintzen diegunean eta irakasleei egiten dutenaren gaineko hausnarketa egiteko eskatzen diegunean, horretan eragin nahi dugu egoera alda dadin.

1 Interbentzioak: hau da, irakasleek egiten dutena ikaslea gaztelaniaz edota euskaraz hitz egiten aditzen dutenean jakitea Ondoren, interbentzio horiek egokitu behar diren ala ez erabakitzeke. Gure aldetik, aholkuak ematen dizkiegu ikastetxeko irakasleek hainbat jokabide eta jarrera komun har ditzaten, gela barnean zein kanpoan dituzten jokabideak bateratzeko eta adosteko. Esate baterako: koherentzia jokatzeko, ikasle berari mezu kontrajarriak ez emateko eta errepikatutako mezuekin inor ez aspertzeko jokabide egokiak adostea proposatzen dugu.

2 Motibazioa sustatzeko bideak aurkitzea. Helburu horrekin Motibazioa Sustatzeko Blog-a sortu dugu, bertan, Bigarren Hezkuntzan erabiltzeko moduko baliabideak jaso ditugu. Blogak biltzen dituen ariketak euskararen inguruko hausnarketa bideratzeko prestatu ditugu. Hausnarketak berak gure etengabeko mezu errepikatuak baino eragin gehiago duelako; alegia, hausnartzeak maiz dakarrelako kontzientzia eraldatzea.

<http://eibz.educacion.navarra.es/blogak/msb/>

Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak

1 2 3 4 5

Interbentzioak: irakasleen jokabideak adostea eta bateratz



Euskara Atala / EIBZ



MSB
Motibazioa Sustatzeko Baliabideak

Samara Arriketak Irakurgaiak Orotzekoak Zure balorazioa Zure proposamena

Hizkuntzen erabilera

Notz argitaratuta: 2015/04/29 Non: Egileak

Irakaslearentzako argibideak:

Arriketa honen helburua hizkuntzaren izaera eta hizkuntza kodeen ariztasuna eta aberastasuna erakustea da. Jarraian dituzue fitxak egiteko materialak: batean, hainbat hizkuntzaren irudiak agertzen dira (lauki batean); eta bigarrenean, hain zehatzak.

Fitxak: hizkuntzen irudiak.

- ARRIKETA ORDENEAN
- Arriketa zerrenda
- AZKENEKOAK
- Hizkuntzen erabilera
- Gure auzokideen hizkuntza
- Hizkuntzeko jarraiek
- Lehenengo esaldia beti euskaraz
- Zure hizkuntza, zure erabak balorazioa
- EIBZ
- Ikasgela
- EIBZ
- Liburutegia
- Hiztegi Eilduma
- IKT
- A ereduak Nafarroan
- Hizkuntza akasak

3 Ahozkoa lantzeko premia eta beharra sortzea irakasleengan. Ahozkoa irakasleekin lantzen hasteko eta ahozkoaren planifikazioa eta sistematizazioa beharrezkoak direla ikusteko kontzientzia piztea da lehen urratsa.

Gure ikasleek euskaraz hitz egin dezaten nahi badugu asko hitz egin behar dutela garbi dago. Eta eskolatik kanpo euskaraz hitz egiteko aukerak ikaragarri murrizten badira non egin behar dute euskaraz? Guk uste dugu irakasleak kudeatzen duen berezko eremu propioan eman behar zaiela hitz egiteko aukera; eta hitz egiteaz ari garenean, ez gara ari modu inprobisatuan eta noizean behin galdetzea eta betiko hiztunak erantzutea. Ahozko jarduera solte espontaneo eta libreki ongi daude, baina guk nahi dugu gure ikasle guztiek hitz egitea eta beren jarduna hobetzeko grabatzea proposatzen dugu, eta ikasleen autoestima handitzeko bideoak ikustea komeni da, eta balorazioetan hasteko ongi egindakoak aipatuko ditugu. Euskarazko ahozko ekoizpenak hobetzen joan ahala hitz

egiteko gogoia handitu egingo dela pentsatzen dugu. Gainera, diskurtso, erregistro eta testuinguru ezberdinetan moldatzen ikastea komeni da.

AHOZKOA

Ahozkoa lantzeko beharra ikusitakoan gure burua prestatzeko Miker eta Mintzola elkarteetara jo genuen eta jasotako formazioari esker "Ahozkoa gelan irakastea" ikastaroa sortu genuen 2010ean. Ikastaroan sekuentzia didaktikoa (SD) txertatu genuen ahozkoa lantzeko tresna eraginkor gisara eta diseinatutako SD hori gelaratu ondoren baloratu egiten dugu (irakasleek, ikasleek eta guk gerorrek).

Sekuentziaren ardatza bertan jasotako helburu komunikatiboa da. Sekuentziaren atal gehienak (adinaren arabera) ikasleekin negoziatzea komeni da. Ikaslea protagonista sentiarazi behar dugu, horrela inplikatu egiten delako eta horrela jarduera emankorragoa bihurtzen delako. Metodologia aktiboa da. Ikasleak euskaraz hizketan eroso eta gustura daudenean, modu bikaina da ikaslea euskarara erakartzeko.



Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak

Bide eta prestakuntza honek ekarri dituen emaitzak ikaragarriak dira: sortutako sekuentzia didaktikoak zein jasotako bideo grabazioak, irakasleen trebakuntza teknologia berrietan (ikastaroak moodlen bidez direlako --on line--, irakasleek taldeko SDak google driven egiten dituztelako eta ikasleak bideoz grabatzen direlako), irakasleen arteko koordinazioa eta elkarlana. Baliabide eta ahazko hizkuntza irakasteko praktika hauek oso erabilgarriak izan daitezkeela uste dugulako aukeraketa bat egin eta eredu on gisara **Ahozko Hizkuntza Irakastea** izeneko gunean bildu ditugu.

AHOZKO HIZKUNTZA IRAKASTEA GUNEA

<https://sites.google.com/a/educacion.navarra.es/ahozko-hizkuntza-irakastea/home>

Guneak, batetik, alderdi teorikoa biltzen du eta, bestetik, ikastetxeetan sortutako, gelaratutako eta baloratutako SDak mailaka antolatuta. Gunearen helburua, besteak beste, ikastetxeetan sortutako materiala partekatzea eta denon eskura jartzea da, ahazkoaren lanketa sistematikoan, planifikatuan eta ebaluatuan aurrera pausuak emateko; ikasleen hitzak zein irakasleenak aintzat hartuta oso emaitza onak eman baititu geletan.

Gurekin urte hauetan formazioan aritu diren ikastetxeak ekarri ditugu hona beraiekin batera egin dugulako ibilbidea, bidenabar, saiatu garelako euren beharretara egokitzen eta gure ikuspegia eta prestakuntza eskaintzen. Bolumen handiko lana izan da, ikastetxe gehienak euskara sustatzeko baliabideak eta bideak eskatzera etorri zitzaizkigun eta hortik abiatuta gure nondik norakoan lagun izan ditugun zenbait ikastetxe aipatu nahi ditugu: Barañaingo Alaitz IP, Zizur Nagusiko Erreniega IP, Iruñeko Amaiur Ikastola, Iruñeko Iturrama BHI, Mendillorriko Pedro de Ursua BHI, Altsasuko BHI, Iruñeko Bernart Etxepare IP; Lizarrako

Remontival IP, Agoizko San Miguel IP, Iruñeko Sanduzelai IP, Atarrabiako Paz de Ziganda Ikastola, Leitzako Erleta IP, Elizondoko San Miguel IP eta Antsoaingo Ezkaba IP .

Ahazkoa irakasteko on line ikastaroan sekuentzia ugari ere sortu ziren ikastetxe desberdinetako irakasle solteek eginik. Kualitatiboki zein kuantitatiboki aurrerapen handia ikusi genuen: guztira 44 ahazko sekuentzia didaktiko sortu ziren eta 401 bideo grabazio jaso genituen. Horietako 33 D eredu eta 11 A eredu.

Eta urte hauetan guztietan, ahazkoaren prestakuntza eskaintzeaz gain, euskararen erabilera sustatzeko baliabideak ikastaroa on line ematen jarraitu dugu hala eskatutako ikastetxe zein

interesatuentzat, nahiz eta datu hauek ez ditugun hemen aipatu ahazkoaren gaian zentratu garelako. Halere, hasieran idatzi dugun bezalaxe, euskararen erabileran bi lan-ildo hauek uztartuta doazela uste dugu.



Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak

AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK

Ahozko hizkuntza modu sistematikoan eta planifikatuan gure geletan lantzeko egitasmoa hedatzea, gure ikasleak ahozkoan trebeak izan daitezen eta euskaraz hitz egiten eroso senti daitezen bultzatzea da gure asmoa. Hortaz, egitasmoa zabaltzea eta sendotzea da guretako erronka nagusia. Ez dadila ikasturte bakar bateko kontua izan, geletako metodologian eta funtzionamenduan eraginen duen bidea baizik. Horretarako, zenbait urratsekin aurrera egitea ezinbestekoa da:

- Irakasleen prestakuntza ahozkoaren irakaskuntzan bideratzea; horretarako eskaintzen ditugu on line ikastaroak, ikastetxeetara eta irakasleen beharretara egokitutako ikastaroak.
- Ahozkoaren lanketa curriculumeko edukiekin uztartzea; helburua komunikazio gaitasunak modu sistematikoan lantzea baita, ez eduki gehiago txertatzea.
- Irakasleen arteko koordinazioa erraztea eta planteamendu emankorrei bidea eskaintzea.
- Ahozkoaren ebaluazioari heltzea mailaka eta horretan denok trebatzen joatea.
- Irakasleek lan egiteko modu honetan sinistea.



Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak

AHOZKOTASUNA EKI EGITASMOAREN BAITAN

Mikele Aldasoro (Ikastolen Elkartea)

2015.07.03

Euskal Curriculumaren garapenerako Euskal Herriko Ikastolek lehenetsi duten kompetentzietan oinarritutako Hezkuntza-eredu Pedagogikoa gauzatzen du DBHrako “Eki Proiektuak”.

Kompetentzietan oinarritutako curriculumean ahozko komunikaziorako kompetentziaren garapenak duen garrantzia aipatu nahi nuke lehendabizi. Ahozkoaren izaera soziala da, eta izaera hori erabat lotzen da Oinarrizko Hezkuntzaren xedeekin: belaunaldi berriak helduarorako prestatzea oinarri sendoak emanez bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko, jasotzen dituzten mezu intelektualak eta afektiboak ulertzeko, besteengan eragiteko mezuak sortzeko, erabakitzeko gaitasuna duten hiritar autonomoak izateko eta gizartean parte hartzeko modu aktibo, kritiko eta arduratsuan. Hezkuntzaren xede horiek lortu nahi badira, ezinbestekoa da ikasleak ahozko komunikazioan trebatzea, hitz mintzatua baita hiritarrok daukagun aipaturiko xedeen lorpenerako bitartekorik eraginkorrena.

Hezkuntzaren xedeak lortu ahal izateko, oinarrizko kompetentzien garapena (diziplina baitakoak eta metadiziplinarrak) ahalbideratzea da oinarrizko hezkuntzaren funtsezko zeregina. Horrek hizkuntzaren beraren zeharkakotasuna aintzat hartzea eraman gaitu. Ahozko komunikaziorako kompetentzia “Komunikatzen jakin” oinarrizko kompetentzia metadiziplinarraren osagaietako bat da, landu beharrekoa beraz. Baina, aldi berean, oinarrizko kompetentzia metadiziplinar horren bitartekaritza beharrezkoa da diziplina baitako oinarrizko kompetentziak eskuratzeko. Hori dela eta, ahozko komunikaziorako kompetentziaren garapenak curriculum osoa zeharkatzen du gure proposamenean, ikasgai guztietan bere ikaskuntza integratuz. Diziplina baitako oinarrizko kompetentziak lortzeko, ikasleak edukiekin batera ikasi behar ditu arloak berezko dituen adierazpen moduak.

Ahozko hizkuntzaren zer, zertarako eta nola

Ezin ukatu ahozko hizkuntza ikaskuntzaren bitartekari dela (ikaskuntza aldamiatzeko, esanahia negoziatzeko, norberaren eta besteen jarduerak bideratzeko, eta abar), baina gure curriculum proposamen ahozko hizkuntza ikaskuntza objektu ere bada, ahozkoaren erabilera esanguratsuak identifikatuz, haien lanketa planifikatuz, gauzatuz eta ebaluatuz.

Kompetente izatea testuinguru eta egoera zehatz batean eraginkortasunez aritzeko abilezia bada, ahozko komunikazioan kompetente izaten ikasteko, testuinguru esanguratsu eta egokietan kokatutako egoerak behar dira, eta haien baitan definitu ahazkotasanari lotutako ikaskuntzak. Hoztaz, egoerak hautatzean dago gakoak: errealak, ikasleentzat esanguratsuak eta euren bizitzako eremu desberdinak kontuan hartzen dituenak. Egoerek ematen diote zentzua ahozko hizkuntzaren erabilerari: ikaslea nekez sentituko da eroso eta motibatua ahazkotasanaren lanketa gelako jarduera soiltzat hartzen bada.



Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak

Egoera bakoitzak finkatzen du zer esan, zergatik edo zertarako eta norentzat. Faktore horiek guztiek laguntzen dute identifikatzen ahozko zein testu-molde landu (jendurreko azalpena, eztabaida, kontaketa, elkarrizketa, boz gorako irakurketa, bertsoa, eta abar) eta determinatzen dute egoera bakoitzerako hizkera egokia. Ahozkoaren baitan erabilera formalak eta ez-formalak badaude ere,

erabilera formala eskatzen duten egoerei eman diegu lehentasuna “Eki Proiektuan”, sekuentzia didaktikoetan hizkuntza idatziarekin, ikus-entzunezkoekin eta IKTen erabilerarekin erlazionatuz.

Egoeraren eskakizunei erantzuna egoki eman ahal izateko, edukia bakarrik ez da langai. Ahozko komunikazioaren beste alderdi batzuk ere ikaskuntza objektu behar dute izan: ahotsaren alderdi erretorikoak (indar-abiadura, intonazioa, pausa-isiluneak...) eta ahotsaren gaindikoak (begirada, gorputzaren jarrera-mugimendua, esku-besoek keinuak...).

Baina aipatutako langaiez haratagoko alderdiak kontuan hartzea eskatzen du ahozkotasanaren lanketak. Edukiaren egokitasuna eta adierazpen-indarra garrantzitsuak dira jendurreko ahozko komunikazioan. Baina diskurtso bat gustuko dugu, batez ere, hizlariak sentimendu bat transmititzen digunean: emozionatzen, dibertitzen gaituena, zerbait irakasten edo kezka bat sortzen diguna. Alderdi psikologikoa da, hein handi batean, hizlariak bere mezua transmititzeko gaitasuna determinatzen duena, eta baita ere audientziak eramango duen inpresioaren eragile nagusia. Emozio-egoera alderdi kognitiboari nagusitzen zaio ahozko komunikazioan: ideiak diskurtsoaren gorputza dira, baina interakzioan sortutako emozioek ematen dute aditzera bere arrakasta. Horregatik du hainbesteko garrantzia emozioak ahozkotasunean. Nork ez du urduritasuna, larritasuna edo zer esan jakin gabe geratzeko beldurra sentitu jendurrean hitz egin behar duenean?

Ahozkoaren aipatu alderdiak besarkatuz, Eki proiektuan ahozko komunikazioaren garapenerako egindakoaren berri ematea da hitzaldi honen helburu nagusia.



Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak

AHOZKOTASUNA SOZIOLINGUISTIKAREN BEHATOKITIK

Kike Amonarriz (soziolinguistikan aditua)

2015.07.03

1.- Soziolinguistika eta ahozketasuna

Soziolinguistika zer den eta bere adar edo joera nagusi batzuk azaldu ondoren, soziolinguistikaren ikerketa eremuaren barruan, ahozketasunarekin lotura duten iker-ildo nagusiak aipatuko ditugu, Euskal Herrian joera horiek izan duten eta duten garrantzia seinalatuz.

Ezin dugu ahaztu, Euskal Herriko soziolinguistikaren erreferentzia nagusiak 70eko eta 80ko hamarkadetan herrialde katalanetatik zetozela, eta garai hartan, ahozketasuna -gaur egun ulertzen dugun moduan-, ez zela lehentasunen artean aipatzen. Hiztunak lortzea, ofizialtasuna eta lege babesa bermatzea eta espazio sozio-funtzionalak irabaztea ziren orduko lehentasunak. Korpusari zegokionez, euskara batua finkatzea eta estandarra zabaltzea ziren kezka nagusiak. Erabilera informalak edo ahozketasunaren lanketa ez zeuden jorratu beharreko lan-ildo garrantzitsuenen zerrendan.

Alabaina, "erabilera"ren gaia zentraltasuna irabazten joan zen neurrian, ahozketasunarekiko kezka ere zabaltzen joan zen. Ikastaro honetan landuko ditugun aztergaietako asko, oso antzeko formulazioekin jorratu zituzten duela 30 bat urte aitzindaritzat jo daitezkeen Koldo Izagirre edo Anjel Lertxundi bezalako idazleek. Euskara sorkuntza-gai zutenak lehenago ohartu ziren gaiaren garrantziaz, euskararen irakaskuntzan edo hizkuntzaren normalizazioan ari zirenak baino. Administrazioiko Euskara Zerbitzuei dagokienez, esate baterako, nekez aurkituko dugu joan den mendeko urteko lan-egitarauetan ahozketasuna helburu duen egitasmorik.

Ahozketasunaren lanketak hizkuntzaren erabileran duen garrantziaz jabetzen joan garen heinean, ordea, euskal soziolinguistikan ere gaiak garrantzi handiagoa hartu du, ikastaro honek frogatzen duen bezala.

2.- Hizkuntzak, hizkerak eta erabilera errealak

Irakaskuntzari eta helduen euskalduntze-alfabetatzeari esker, euskaldunen kopurua nabarmen handitzen hasi zenean, zabaldu zen erabilerarekiko kezka. Batetik, euskaraz zekiten eta euskaraz ikasten zuten haur eta gazte horietako gehienek ez zuten euskaraz egiten eskola eremutik kanpo, eta bestetik, euskaraz ari zirenek zerabilten euskara bera ere, kezka iturri zen askorentzat: hizkuntzaren kalitatea, euskañola edo adierazkortasun falta bezalako kontzeptuak gero eta maizago agertzen ziren euskaltzaleen idazkietan eta hausnarketetan.

Soziolinguistikak, azken urteotan, baina, datu argigarriak eman dizkigu bi aspektu hauen inguruan:



Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak

- Inkesta soziolinguistikoek, ARRUE Ikerketak eta erabileraren neurketek, esate baterako, euskararen erabilerari buruzko argazki zehatzak utzi dizkigute.
 - o Haur eta gazteen erabilerari buruzko daturik esanguratsuenak azalduko ditugu.
 - o Erabilerara edo ez erabiltzera bultzatzen dituzten faktorerik nagusienekin batera.
- Bestalde, gaur egun darabil(tza)gun euskara erreala(k) deskribatzen saiatuko gara.
 - o Hizkera gazteen joera nagusienak azalduz.
 - o "Code-switching" (euskañola edo frantseuskara) fenomenoaren hedadura marraztuz.
 - o Batuaren eta euskalkien arteko harremanak eta etorkizuneko joerak deskribatuz.

Gure hizkuntza komunitatearen barne ezaugarrietan azken hamarkada hauetan gertatu diren aldaketa sakonen ondorioz, etorkizuneko belaunaldi gazteen ahozko euskara desberdina izango da. Eta hizkera horiekiko gure jarrerak ere aldatu egin beharko genituzke.

Bestalde, teknologia berrien zabalkuntzaren eraginez, ahozkoaren eta idatzizkoaren arteko mugak lausotzen joan dira. Ahozkoan oinarrituriko idazkera informala sortu da, eta fenomeno honek, gazteen hizkuntza mailari buruzko kezka eragiteaz gain, jarrera desberdinak eragin ditu mundu osoan (baita hizkuntza handien kasuan ere); aldekoak batzuk, eta arbuiozkoak besteak. Euskal Herrian ere izan da eta bada bietarik.

3.- Hizkuntza kalitatea

2004an, Joxerra Garziarekin eta Andoni Egañarekin batera idatzitako "Hizkuntza kalitatea"ri buruzko txostenaren ideia nagusienak errepasatuko ditugu eta gaiaren inguruan hamarkada honetan burutu den bidea eta egiteke duguna komentatuko dugu.

Urte hauetan, bestalde, hizkuntzaren kalitateari buruzko bestelako haurnarketak ere agertu dira, gurearen antzeko ikuspegietatik:

- Irakaskuntzan komunikazioari eta ahozkotasanari garrantzia aitortzen dieten joerak.
- Euskararen estetika lehenesten duten iritziak (Fermin Etxegoien)
- Ibon Sarasolaren azken hausnarketak batuaren inguruan.
- Euskara sinpleagoaren aldeko aldarriak.

Ahozkotasuna irakaskuntza barruan landu beharra, gure egoera soziolinguistiko bereziak dituen ezaugarri eta premia berezietatik sortu da. Ezin zaio euskarari espainiar edo frantses eredurik aplikatu, bi hizkuntza horien egoerek ez dutelako zerikusirik gurearekin. Eskolak, premia berezi horiei ere erantzun behar die, "estatu hizkuntzetan" oinarrituriko eskola sistemetan horrelakorik egiten ez bada ere.

Zer eta nola landu, ordea, beste kontu bat da.



Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak

4.- Eskolaren egitekoa, mugak, eta ezinbesteko dituen bidelagunak

Eskolak asko egin du eta asko ari da egiten. Baina gehiago ere egin dezake oraindik, ahozkotasuna lantzearen bidetik. Horretarako, ahozkotasuna, komunikaziorako gaitasuna, adierazkortasuna (gure txostenean "egokitasuna" izendatzen genuen hura), edo orokorrean esanda, euskararen erabilera bera, jarri behar ditu erdigunean. Eta ahalik eta adostasunik eta inplikaziorik zabalena lortu ikastetxeetan eta hezkuntza komunitate osoan, arduradun nagusienengandik hasita.

Baina horrekin batera, ezinbesteko ditu bidelagunak, bai maila makroan, nola mikroan:

- Familia eta ingurune hurbilaren inplikazioa eta konpromisoa.
- Aisialdia eta eskolorduz kanpoko jarduerak.
- Euskarazko hedabideetan (telebistak eta irratiak) erreferentziazko emankizunak.
- Kultur produktu eta zerbitzu egokiak eta erakargarriak euskaraz eskuragarri izatea: musika, ikastaroak, telefonia, jokoak, Internet, zinema...

5.- Ahozkotasuna etorkizuneko erronka nagusietako bat

Etorkizunera begira funtsezkoa izango da, hizkuntza arazorik gabe erabiltzeko gai izango diren hiztun osoak izatea. Euskarak hiztun horien behar komunikatibo guztiak asetu behar ditu, arazorik gabe erabil dezaten.

Ahozkotasunaren lanketa funtsezkoa izango da helburu hauek lortze aldera.

Baina komunitate osoari begira, euskarak eraldatzen jarraituko du, eta etorkizun hurbilean entzungo ditugun euskarak, oro har, nahasiagoak izango dira, sinpleagoak eta akasdunagoak. Nolakoak izango dira, ordea? Horretan eragin handia izango dute, besteak beste, irakaskuntzak eta komunikabideek. Eta bereziki, hiztun horien inguruko euskararen erabilera dentsitateak eta erabiliko den euskararen nolakotasunak.

Azkenik, ezin dugu ahaztu, hurrengo belaunaldiak erabileran jauzi kuantitatibo eta kualitatiborik ematen ez badu, azken hamarkada hauetan lortutakoa galtzeko arriskuan egon gaitezkeela.